

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Tokiko erakundeei laguntzak emateko deialdi bat onartu da interes orokorreko lanetan enplegua sustatzeko

Laguntzek soldaten kostuei diru-laguntzak ematen dizkie eta deialdia 3,7 milioikoa da

Viernes, 02 de marzo de 2012

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak [langabeak kontratatzeke Nafarroako tokiko erakundeei diru-laguntzak emateko deialdia](#) onartu du interes orokorreko edo sozialeko obrak egin edo zerbitzuak betetzeko. Administrazio-ebazpena gaur, [martxoaren 2ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean \(NAO\)](#) argitaratu da.



Nafarroako udalerri baten ikuspegia.

Laguntzak 3.724.550 eurokoak dira, Europako Gizarte Funtzak (EGIF) kofinantzatuta dago, eta tokiko erakundeek egingo dituzten kontratuen soldataren kostuak diruz laguntzeko dira. Haiek kontratatu beharko dituzte, gutxienez 3 hilabetez eta gehienez 9 hilabetez Nafarroako Enplegu Zerbitzuko agentzietan enplegu-eskatzaille moduan izena emandako pertsonak. Bi pertsona baino gehiago kontratatzen direnean, batek gutxienez lehenetsitako taldeetako bateko kide izan beharko du eta, kontratuak lau edo gehiago izango balira, aipatutako taldeetako bateko kontratazio-kopuruak, gutxienez, erdia izan beharko du, zenbaki bikoitia bada, edo erdia gehi bat, kontratazio bakoitiak badira.

Lehenesten diren taldeak honako hauek dira: 1) Gizarteratzeko edo gizarte-lan mailan sartzeko Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzen hartzaileak; 2) 50 urte baino gehiagokoak; 3) 30 urte baino gutxiagokoak; 4) ezintasun bat duten pertsonak; 5) iraupen luzeko langabeak eta, gutxienez, kontratazio-datarekin alderatuz urtebete lehenago izena emandakoak.

Diru-laguntzak kontratuen soldata-kostuen % 50 eta % 90 jasotzen du, gizarte segurantzako kostuak barne, eta portzentaje aplikagarria honako hauek kontuan hartzen dituen baremo baten baitan dago: tokiko erakundearen biztanle-kopurua, baremoan ezarritakoaren gainetik lehenetsitako taldeen pertsonak kontratatzea eta egin beharreko jarduera. Azken puntu horretan, ondorengoei lotutako proiektuen jarduerak lehenesten dira: [Moderna Plana](#), [Irisgarritasun Unibertsala eta Diseinuaren](#)

[foru-legea pertsona guztientzat](#) eta [Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala](#).

El plazo de presentación de Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa da argitaratzen denetik.

Deialdi hori osagarria izango da, martxoan onartuko den gizarteratzeko edo gizarte-lan mailan sartzeko errenten hartzaileak kontratatzeke Nafarroako Gobernuak iragarritako neurriekin.